# Apostoluen eguiñac

## Lenengo Capitulua

1. Nere aurreneco izquinzan itz-eguin=
det, gausa guztien gañean, ceñac
Jesus asi zan eguiten, eta eracusten,
2. Apostoluari, Espiritu Santuaren
virtutez, eracutzicien eguneraño,
ceruan izan duzala artua.
3. Aquertu citzayen, viciric, bere
pasioco señaleaquin, berroguei egu=
neco demboran, ceruetaco erreinu=
aren gañean itzeguiten.
4. Eta berequin jaten cegoala, aguin=
du cien etciteceta "atera" Jerusalendic,
baicic ichoncezaleta, aitac ez=
quiñiduena, bere aotic, aditu
duten becela.
5. Cergatic Juanec, equiaz, bateyatu
zuen, urtan, eta zuec izangocente
bateyatuac, Espiritu Santuan,
eguin oyec paratcen diranean.
6. Orduan, alderatu citzayonac,
galde eguiten cioten, ezanaz, ¿Jauna,
viurtuco otedezu dembora onetan
Israelgo erreinua?
7. Eta eranzuen cien: ez dezute
zuec jaquin bear dembora eta ordu=
ac, aitac bere aguinterarequin
jarri cituenac.
8. Bañan artuco dezute Espiritu
Santuaren virtutea, cen etorrico
dan zuen gañean, eta izango cera=
te nere testiguac Jerusalenen,
eta Judea, eta Samaria guztian,
lurraren punta guztietaraño.
9. Au ezan zuenean, guztiac begui=
ra ceudela, juan zan igotcen, y eta

odey batec escutatu zuen beren aurrean.
10. Eta cerura bequira ceudenean, bera cijoanean, jarri ziran aldamenean bi quizon soñeco zuriaquin,
11. Ceñec ezan cioten; ¿Galileoco Guizonac, cerura bequira zaudete? zuen aurrean cerura igodan Jesusau, ala icusico dezute etorcen, igotcen icusidezuten becela.
12. Orduan viurtu ciran Jerusalena, Olivarco menditic;
13. Eta sartu ciranean, igociran afaritoquira, non ceuden Pedro eta Juan, Santiago eta Andres, Felipe eta Tomas, Bartolome eta Mateo, Santiago Alfeo eta Simon Celosoa, eta Judas Santiagoren anaya.
14. Oyec gustiac ceuden erregutzen beren emacumeaquin, eta Jesusen Ama Maria bere anayarequin.
15. Egun ayetan, alchaturic Pedro, bere anayen erdian (eta ciran eun eta oquei quison becela) ezan zuen:
16. Anayac convenizan, Espiritu Santuac Daviden aotic esan zuena, Judaren gañean, cumplitu zedien, au izan zala, Jesus preso equin zutenean, aquintaria;
17. Gure artean contatcen zana eta gure ministerioan parte ceucadala;
18. Onec bada eduqui zuen gaisquitazuneco campoa, eta chinchillic jarriric, lertu zan erditic; eta isuri ziran bere barreñac.*
19. Eta jaquin equin cioten Jerusalenen vici ciran gustiari, eta campo

ura izan duzan deitua, bere iz-
quinzan, Haceldama, ezan nay
duena, odelerco campoa.
20. Cergatic Psalmoetaco liburuan
dago escribituric, Ayen vicilecua
quelditu dedilla bacarric, y
eta iñor vici ez dedilla, eta
artu dezala beste batec bur
aren aquintea.
21. Conveni da bada, Jesus gurequin
sartu eta aterazan artean, gure
artean, egonduciran quizon
oyetatic,
22. Juanen bateyotic asita, gure
artean artua izan duzan
daño, izan dedilla gurequin
testigu, nola pistuzan.
23. Eta marcatu cituzten bi, bata
Jose, Barsabas deitutcen zana,
eta icen goitiz justuba, eta
bestea Matias.
25. Apostoladu onetan lecua artu
dezan, eta nondic bere gaitz-
tazunagatic bota izan zan Judas
bere lecura juateco.
24. Eta erregu eguiñaz esan zuten:
Zuc, Jauna, gure viotzac esa-
gutcen dituzuna, eracutsi
eguizu, oyec bietatic, ceiñ
artu beardegun,
26. ~~Apostoladu onetan~~ Eta suerteac botata guertatu zan
Matias, eta izanduzan beste
ameicaren artean contatua.

## Bigarren Capitulua.

1. Eta Pentecosteco egunac cum-
plitcen ciranean, gustiac
ceuden alcarrequin lecu batean,

2. Eta bereala etorri zan Cerutic otz
aundi bat, aice andi batena becela=
coa, eta bete zan ecerita ceuden echea.
3. Eta aguertu citzayoten mingañ
batzuec, zuscoac becela, eta quel=
ditu ciran bacoitzaren gañean:
4. Eta izan du ciran Espiritu Santuz
beteric, eta asi ciran bacoitzac
bere izcunza itzeguiten, Espi=
ritu Santuac ezaten bacien becela,
itzeguiteco.
5. Eta vici ciran orduan Jerusale=
nen Judioac, guizon relijiosoac,
ceruaren azpian dauden toqui
guztietacoac,
6. Eta otz au equinda, etorri zan
gende asco, eta quelditu zan izu=
turic cergatic aditcen zuten,
bacoitzac itzeguiten ciotela be=
ren equiarco izcunzan.
7. Eta ceuden icaraturic eta arri=
tcen ciran esanaz; ¿Ez dezute
icuzten, itzeguiten dauden oyec
danac Galileoac dirala?
8. ¿Cergatic bada aditcen diegu
itzeguiten, jayo guiñan lurreco
izcunzan?
9. Partoac eta Medoac, Mesopo=
tamian vicidiran guztiac, Ju=
dean eta Capadocian, Ponton
eta Asian
10. Phrigian eta Pamphilian,
Egipton eta Libiaco lurretan,
Cireneco aldamenean dagoana;
eta Erromatic etorri diranac
11. Judioac ere, eta Proselitoac, Cre=
tenseac eta Arabeac: aditu diegu

gure incunzan jaungoicoaren
anditazunac.
12. Arritcen ciran bada guztiac,
batac besteari ezanaz; ¿Cer
ezan nai du onec?
13. Bañan beste batzuec farra
eguinaz ezaten zuten; Ardos
beteric daude.
14. Bañan Pedroc bere amaica la-
gunen artean zutic jaiqui-
deadarrez ezan cien; Judeaco
guizonac, eta Jerusalenen vi-
ci ceratenac; jaquin zazute,
eta adietzazute itz oyec,
15. Cergatic ez dauden eranac,
zuec uste dezuten becela,
bada orain da egunaren ter-
ciaco ordua:
16. Bañan au da Joël Profetac
ezan zuena;
17. Eta guertatuco da azqueneco egune-
tan, ezaten du Jaunac, nic isurico
dedala nere Espiritua araqui guz-
tiaren gañean: eta zuen semeac
eta alabac ezango dute cer guer-
tatuco dan, etan zuen morroyac
icurico dituzte visioac, eta zuen
guizon zarrac ametz eguingodute.
18. Eta eguiaz egun ayetan isurico
det nere Espiritua, nere serbitza-
rien gañean, eta ezango dute cer
guertatuco dan:
19. Eta eguingo ditut ceruan gauza
arrigarriac; eta señaleac lurrean,
odola, sua, eta quearen vaporea.
20. Eguzquia biurtuco da illuntazu-
nean, eta illarguia odoletan,

jaun aundiaren eguna etorri dedin
baño lenago.
21. Eta quertatuco da, Jaunaren icena,
deitcen duena, isango dala salvatua.
22. Israelgo guisonac, aditu etzazute itz
oyec; Jesus Nazareno bere virtuteac
gaitic, bere milagroac gaitic izandu
zan Jaungoicoa gaitic zuen artean
autua, zuec daquizuten becela;
23. au Jaungoicoaren aguintez eta bere
aurrean, izandu zan entregatua,
eta zuec ilcen duten, guruitzifi-
caturic guizon gaistoen escuetan:
24. Jaungoicoac pistu du au eriotzaco
miñac quenduta cergatic etzan
posible eriotza gelditzea.
25. Cergatic Davidec esaten du; Contu
eguiozu beti Jaunari, nere aurrean,
cergatic dago nere escubico aldean,
ni muvitu ez nadien.
26. Orregaitic nere viotza postu zan,
y eta nere mingañaere, eta
gañera nere araguiac sosegatuco
du, esperanzan:
27. Cergatic ez dezu utcico nere Corpu-
tza sepulcroan, eta ez dezu ere
utcico zure Santuac icusi dezan
gaizquitasuna.
28. Eracutzi cidazun vicitceco videac,
eta beteco nazu pozes zure aurrean
egoten naicenean.
29. Anayac, sillegui izan dedilla ze-
retzat, Patriarca Daviden liberta-
zunarequin esateco, illa eta
sepulltatua izandu zala, eta
gaurco egueneraño, gure artean
dagoala bere sepultura.

30. Izanic bada Profeta, eta jaqui-
nic Jaungoicoac eguiaz esan
zuela juramentuaren azpian,
bere bizcarretaco frutua eserico
zala bere Tronuan,
31. Aurretic icusiric, Jesusen
piztutzearen gañean itzeguin
zuen, etzala izandu sepultu-
ran utzia, eta ezta ere be-
re araguia ustelduа.
32. Jesus au piztu zuen Jaungoi-
coac, guztioc testigu guiñala.
33. Ala bada, Jaungoicoaren escutic
aundituric, eta arturic Aitagan-
dic Espiritu Santuaren promesa;
isuri du gure gañean, zuec ecus-
ten eta aditzen dezuten au.
34. Cergatic David etzan igo ceru-
tara: eta ala ere esaten du: Jau-
nac esan cion bere Jaunari; e-
seri zaite nere escubico aldean,
35. Zure etsayac nere oñaren az-
pian jarri ditzan artean.
36. Orregaitic, jaquin beza eguiaz,
Israelgo eche guztiac, zuec go-
rutzificatu cenduten Jesusau,
eguin zuela Jaungoicoac, Jau-
na, eta Cristo.
37. Gauza oyec aditu cituztenean,
tristatu ciran biotzetic, eta
esan cieten Pedro eta berte
Apostoluari: Anayac, ¿ cer
eguingo degu?
38. Eta Pedroc erantzun cien:
Damutu zaitezte, eta bacoitza
izango da bateyatua Jesucristoren
icenean, zuen pecatuen barca-

cioraco: eta artuco dezute Espiritu San-
tuaren doya.

39. Cergatic, zuentzat, zuen semeentzat,
eta urruti egona gaitic, Jaunac bere
aldera deitzen dituen guztientzat,
da equin duen promesa.

40. Oyequin eta arco arrazoyaquin, ja-
quiñ equin zuen; eta adierazten
cien, esanaz: Salva zaitezte casta
gasto onetatic.

41. Eta beraren itza artu zutenac,
izandu ciran bateyatuac, eta
egun artan izandu ciran iru
milla persona becela juntatuac.

42. Eta oyec ceuden firme Apostolu-
en dotriñan, eta oguiaren parti-
cioan, eta erreguetan.

43. Eta persona guztiac ceuden
bildurrez: eta Apostoluac e-
guiten cituzten Jerusalenen
milagro eta señale asco, eta guz-
tiac ceucaten bildur aundia.

44. Eta guztiac uste zuten ceudela
baturic, eta ceuzcaten gauza
guztiac, gucienac becela.

45. Beren lurrac eta hacienda
guztiac saldutzen cituzten, eta
beren premiac ciran moduan,
guztiari partitzen cioten.

46. Eta egunero ceuden baturic
Templean, eta eche guztietan
oguia partituric, arcen zuten
jatecoa biotzeco pozgarri aundi
batequin,

47. Jaungoicua alabatuaz, eta erri guz-
tian gracia arquitzen zutela: eta
Jaunac egunen aunditzen zuen,

unio onetan salbatu bear ciraden
personen aunditasuna.

Irugarren Capitulua.

1. Pedro eta Juan juaten ciran Tem=
plora erregutzera, nonaco orduan.
2. Eta ecarri zuten guizon erren bat;
eta jarten zuten Elisaco atarian,
an sartzen ciran guztiai limos=
na escatzeco.
3. Onec, Juan eta Pedro Elisan sar=
tzen icusi cituenean, erregu=
tu cien limosna emateco.
4. Eta Pedroc, Juanequin beguiac
jarriric, guizon onetan, esan
cion: Beguira iguzu.
5. Eta berac beguiratzen cien a=
tencioarequin, cerbait emango
cioten ustean,
6. Eta Pedroc esan cion: Ez da=
ducat urreric, eta ere cillarric;
banan ematen dizut daucazana:
Jesus Nazarenoaren icenean, ab=
chatu zaitez eta ebilli zaitez.
7. Eta escubico escutic artuta ab=
chatu zuen, eta orduan bertan
bere oñac izandu ciran con=
ponduac.
8. Eta salto bat eguinic, jarri
zan zutic eta asi zan ebiltzen;
eta sartu zan berarequin Elisan
saltatutzen eta Jaungoico a=
labatzen.
9. Eta erri guztiac icusi zuen ebil=
tzen eta Jaungoicoa alabatzen.
10. Eta ezagutzen zuten, zala,
Elisaco ate ederrean, limosna
ezque jarten zana eta gueldituz

ciran arrituric eta soraturic be-
cela, guizon onequin guetatu
zana gaitic.

11\. Eta Pedrori eta Juani, elduta ce-
goala, etorri zan erri guztia i-
ruturic, Salomonen Porticura.

12\. Eta Pedroc au icustean esan
cion erriari: Israelgo guizonac,
¿Cergatic arritzen cerate, edo
beguiratzen diguzute, gure
birtutez, edo poderiagatic, gui-
zon au ebiltzen ari balitz becela?

13\. Abrahanen, Isaacquen, Jacoben,
eta gure aitaen Jaungoicoac,
glorificatu du bere Seme Jesus,
ceiñ zuec ucatu cenduten era
Pilatosi eraman ciozuten, li-
bratu bear zana juzgatuaz.

14\. Baño zuec ucatu cenduten
Santua eta justua zana, eta
escatu cenduten guizon iltza-
llea ematecoa zueri.

16\. Eta bere fedearen icenean, confirma-
tu du bere icena, zuec icusi eta eza-
gutzen dezuten guizon onetan, eta
daducan fedea gatic eman dio, zu-
en aurrean, osasun osoa.

15\. Eta iltzen duten biciaren eguin-
tzallea, ceiñ Jaungoicoac, illen
artetic piztu zuen, testigu izandu
gueran becela.

17\. Eta orain, Anayac, badaquit nic,
zuec eguin dezutena zuen jaquin-
duriaren guchitasuna gatic, eta
zuen principena gatic.

18\. Bañan Jaungoicoac, lendanic, Pro-
feta guztien aotic esan da ceucana,

bere Cristo aquertu zala; cumplitu
du.
19. Damutu zaitezte bada, eta biurtu
zaitezte, zuen pecatuac barca-
tuac izan ditezten;
20. Poztasuneco demborac, Jaunaren
arrean, etortzen diraneraco eta
Jesus zueri predicatu cizuten
ura, bialdu dezan artean,
21. Ceiñ equiaz izan bearda reci-
bitua Ceruac, gauza guztiac jun-
tatu ditecen artean, Jaungoi-
coac, bere Profeta santuen
aoitic itzeguin zuen becela.
22. Cergatic Moisesec esan zuen:
Jaungoicoa alchatuco du zuen
anayen artetic, Profeta, ni
becela, eta esaten dizuten guz-
tia adituco diozute.
23. Eta quertatuco da, Profeta ari;
aditzen ez dion guztia, izango
dala erritican botea.
24. Eta egun oyec lendanaz esan
cituzten Profeta guztiac, Sa-
muelen demboratic, eta gueroz-
tic itzeguin dutenac.
25. Zuec cerate Profeten, semeac,
eta Jaungoicoac zuen aitari;
aguindu cien testamentuarenac,
Abrahami esan cionean: Lurreco
familia guztiac izango dira
zure acian bedincatuac.
26. Jaungoicoac, bere semea piztu-
tzean, bialdu du aurrena zue-
tara, bedincatuac izan zaitez-
ten berogatic, eta bacoitza al-
deratu dedin bere gaistotasun[illegible]

## Laugarren Capituloa.

1. Eta ayec erriari itzeguiten ceudela, aguertu ciran Sacerdoteac, Elisaco Magistradua, eta Saduceoac,

2. Erriari eracusten ciotelaco, eta illen piztutasuna predicatzen zutelaco,

3. Preso eguin cituzten eta carcelan sartu cituzten urrengo eguneraño cergatic berandutu zan.

4. Bañan predicacioa aditu zuten guizon arcoc, bost millaraño, sinistu zuten.

5. Eta quertatu zan, urrengo egunean batu cirala Jerusalenen, beren aguintariac, guizon zarrac eta Escribac,

6. Anas Sacerdoteen aguintaria, Caifas, Juan, Alejandro eta ~~[illegible]~~ ~~[illegible]~~ Sacerdoten linagecoac ciran beste arco.

7. Eta aguertuasiñic, galdetu cieten: ¿Ceñen aguintasunaz, ó ceñen icenean eguin dezute au?

8. Orduan Pedroc, Espiritu Santuz beteric, esan cien: Errico aguintaria, eta guizon zarrac, aditu ezazute:

9. Ceñen birtutez sendatua izandu dan guizon gasso bat, arrazoya escatzen zaiguz ezquero,

10. Jaquin zazute guztioc, eta Israelgo erri guztiac, Jesus Nazareno, zuec gurutzificatu cenduten, eta illen artetic Jaungoizcoac piztu zuenaren birtutez, sendatua izan dala zuen aurrean daguan guizona.

11. Au da, zuen arguin maisuac gatic, autua izandu eztan arria, eta esquinaren buruan

jarria izandu dana.

12. Eta ez dago osasunic bestetan. Cergatic ez dago ceruaren azpian, guizonai emandaco icenic, ceñean salbatuac izan bear degun.

13. Pedroren eta Juanenean firmeza icusi zutenean, uste zuten cirala, jaquinduri eta letra bagueco guizonac, eta arritutzen ciran, eta ezagutzen Jesusequin egondu cirala;

14. Eta nola beren artean icusten zuten cegoela sendatua izanduzan guizona, ecin ecer esan cezaten beren contra.

15. Bañan aguindu cieten campora ateratzeco, eta beren arten esaten zuten,

16. ¿Cer eguingo degu guizon oyequin? Cergatic eguin dute, Jerusalenen daude guztiac icusi duten milagroa; jaquiña da bada, eta ecin ucatu dezaquegu.

17. Oraindic, errian gueyago aditzera eman ez dedin, bildurtu ditzagun gueyago icen onetan itzeguin ez dezaten iñori.

18. Eta otzeguinda, esan cien; etzezaleta beñere gueyago itzeguin, eta eztaere eracutsi, Jesusen icenean.

19. Orduan Pedroc, eta Juanec erantzun cieten, juzgatu ezazute zuec, Jaungoicoaren

bañan lenago, zueri aditcera.
20. Bada ecin egon quintezque, icusi eta aditu dituguun gauzaren gañean itzeguin bague.
21. Orduan, amenazac eguiñaz, libre juaten utzi cieten, cergatic etzuten billatzen castigatzeco motivoric, eta cergatic guztiac alabatzen zuten, quertatu zan milagro aundiaac.
22. Cergatic guizon onec, ceuzcan berrogei urte baño gueyago, sendatua izandu zanean.
23. Libratu ciranean, etorri ciran beren laguunen artera, eta contatu cieten, Sacerdoteen Aguitariac, eta guizon zarrac esan cien guztia.
24. Eta aditu zutenean, danac batean Jaungoicoari otsequin cioten, esanaz: Zu cera, cerua, lurra, itsasoa, eta oyetan arquitzen diran gauza guztiac, eguin cituena:
25. Espiritu Santuan, gure aita; eta zure morroy Daviden aotic, esan cenduena: ¿Cergatic gendeac deadar eguiten zuten, eta erriac, gauza utsetan pensatzen zuten?
26. Alchatu ciran lurreco Erreguean, eta batu ciran Principeac, Jaunaren, eta Cristoren contra.
27. Cergatic eguiaz batu ciran Herodes eta Poncio Pilato, Gentillaquin eta Israelgo erriaquin, zuc ungitu cenduen, zure Seme Santuaren contra,
28. Zure escuac, eta zure consejuac, eguin cedilla, aguindu zutena.
29. Eta orain, Jauna, beguiac jarri

itzatzu ayen amenacetan, eta
emayezu licencia zure sierboai;
libertade guztiarequin zure
itza erran dezaten,
30. Zure escua luzatuaz, gaitzac
sendatzeco; eta zure Seme Se-
ruaren icenean, equin ditecen
milagroac eta arritasunac.
31. Eta erregutu zutenean, junta-
turic egon ciran lecua mogitu
zan; eta bete ciran Espiritu
Santuaz, eta itzequiten zuten;
confianzarequin, Jaunaren itza.
32. Eta sinistetzuen guztien bi-
otzac ciran bat bacarra; eta
anima bat; eta etzuen iñorc
esaten, ceucadan gauzaric berea
zala, baicic gauza guztiac,
cirala guztienac.
33. Eta indar aundiarequin, e-
maten zuten Apostoluac,
Jesucristo gure Jaunaren
piztutasunaren testimonioa;
eta ceucaten guztiac graci aundia.
34. Eta etcegoan ayen artean iñor
ere premian; cergatic ceuz-
caten lur, eta eche guztiac,
saldutzen cituzten, eta ecarten
zuten saldutzen zuenac, balio
zuena,
35. Eta jarten zuten Apostoluen
oñetan, eta partitzen citzayon
bacoitzari bear zuena.
36. Eta Josef, ceñari Apostoluac
deitzen cioten Bernabe (erran
nai duena porgarriaren Semea)

37. Nola ceucan lur bat, saldu zuen, eta
jarri zuen Apostoluen oñetan, balio
zuena.

## Bostgarren Capitulua.

1. Eta Ananias ceitzayon guizon batec, bere
emazte Saphiravequin, saldu zuen lur bat,
2. Eta ostu zuen lurrac balio zuena, bere
emazteac consentituta; eta parte bat
eramanda ipiñi zuen Apostoluen oñetan.
3. Eta esan cion Pedroc: ¿Ananias, cergatic
tentatu du zure biotza Satanasec, Espi=
ritu Santuari guezurra esateco, eta lur=
rac balio zuena ostutzeco?
4. ¿Ez da eguia conservatuta zuretzat guel=
dituco zala, eta salduta zure aguintean
ceucazula? ¿Cergatic bada, jarri cen=
duen zure biotzean gauza au? Zuc
guezurra esan diozu Jaungoicoari, eta
ez guizonai.
5. Ananias, itz oyec aditu cituenean, erori
zan eta il zan, eta etorri zan aditu zu=
ten guztien gañean bildur aundi bat.
6. Eta mutill batzuec alchaturic, aparta=
tu zuten, eta eraman zuten enterratzera.
7. Eta andic iru orduan becela sartu zan
bere emaztea ere, cer guertatu zan
etcequiela.
8. Eta Pedroc esan cion: Emacumea, ¿esan
eguizazu, onembestean saldu dezute soroa?
eta eranzun cion: Bai, onembean.
9. Eta Pedroc esan cion: ¿Cergatic tratatu
dezute, Jaunaren Espiritua tentatzeco?
Beguira emen atean, zure senarra, en=
terratzera eraman zutenaren, eta zu era=
mango zaituztenaren oñac.
10. Puntuan erori zan, eta il zan bere oñetan.
Eta mutillac sartu ciranean, arquitu zuten

illa, eta eraman zuten bere senarra-
requin enterratzera.

11. Eta etorri zan bildur aundi
bat eliza guztian, eta gauza
oyec aditu cituzten guztien
gañean.

12. Eta apostoluen escuetatic eguiten
ciran gauza arrigarri, eta
milagro asco errian. Eta ceuden
guztiac baturic Salomonen
galerian.

13. Eta besteetaco iñor etzan
atrebitzen ayecquin junta-
tutzera: bañan erriac onra-
tzen cituen modu andian.

14. Eta aunditzen zan Jauna-
gan sinistatzen zuten gui-
zonen, eta emacumeen
ascotasuna,

15. Aimbeartan cer ateratzen
cituzten caleetara gaxoac,
eta jartzen cituzten oye-
tan, Pedro pasatzen zanean,
beintzat bere itzalac icutu
cezan ayetaco bat, eta guel-
ditu citecen sendatuac.

16. Eta etortzen zan Jerusalena
jende asco inguruetaco ciu-
dadeetatic, gaxoac, eta etsai
gaiztoac gatic atormentaturic
ceudenac: eta sendatzen
ciran.

17. Bañan sacerdoteen aguintaria,
eta berequin ceudenac, Sa-
duceoen doctrinacoac, alchata
ciran, eta celoz bete ciran:

stoluac, eta jarri cituzten carcela
publicoan.

19. Bañan Jaunaren ainguerauac gabaz
ateac iriquita, campora aterata,
esan cien:

20. Zoazte, eta elizan aguertuta pre=
dicatu zayozute erriari bicitza
onetaco itzac.

21. Au aditu zutenean, sartu ciran
elizan goicetic, eta ecarten zuten.
Bañan sacerdoteen aguintaria, eta
berequin ceudenac etorrita, con=
cilioa deitu zuten, eta baitaere
guizon zar guztiac, eta Israelgo
semeac: eta bialdu cituzten carce=
lara ecarri citzaten.

22. Bañan ministroac juan cira=
nean, eta ateac iriquita iñor
billatu etzutenean, juan ciran
abisatzera,

23. Esanaz: Eguiaz carcela arquitu
degu chit ondo ichia, eta guardac
atearean aurrean: bañan
iriqui degunean, ez degu barre=
nen iñor arquitu.

24. Elizaco magistraduac, eta sacer=
doteen aguintariac au aditu
zutenean, dudan ceuden cer
guertatu ote zan ayequin.

25. Bañan orduan berton etorri
zan bat, eta esan cien: Beguira,
carcelan sartu cituzuten gui=
zon ayec, elizan daude, eta
erriari eracusten.

26. Orduan juan zan magistradua
bere ministroaquin, eta ecarri
cituen indarric eguin gabe:

cergatic ceucaten erriac ar-
rica eguingo cioten bildurra.
27. Eta ecarrita bereala, eraman
cituzten concilliora. Eta sa-
cerdoteen aguintariac galde
eguin cien,
28. Esanaz: Ordena claroarequin
aguintzen dizutegu ez de-
zazutela eracutsi icen onetan:
eta beguira nola bete dezuten
zuen dotrinaz Jerusalen
guztia: eta bota nai dezute
gure gañean guizon orren
odola.
29. Pedro, eta Apostoluac eran-
tzunaz, esan cieten: Jaun-
goicoari obeditu bear zayo
lenago, guizonai baño.
30. Gure aiten Jaungoicoac piztu
zuen zuec egur batean jar-
rita il cenduten Jesus.
31. Au alchatu zuen Jaungoicoac
bere escubico escuarequin,
Israeli damutasuna, eta
pecatuen barcacioa emateco.
32. Eta gu guera itz oyen testi-
guac, eta baitaere Jaungoi-
coac obeditzen duten guztiai
eman dien Espiritu santua.
33. Au aditu zutenean, lertzen
ciran, eta nola ilco zuten
consulta eguiten zuten.
34. Bañan alchaturic conci-
lioan Gamaliel ceitzayon
fariseo batec, leguezco dotorea,
eta errian errespetu aundicoa,

atera citecela pisca batean.
35. Eta esan cien: Israelgo guizonac, bequira ezazute onguí zuec gatic, eta cer equiten zuazten guizon onequin.
36. Cergatic orain baño lenágo izandu zan Teodas deitzen citzayon bat, esaten zuena cerbaith zala, eta lareguen guizonec becela sequitu cioten: eta guero il zuten: eta sinistu cioten guztiac izan ciran apartatuac, eta utzera biurtuac.
37. Onen ondoren alchatu zan Iudas Galileoa empadronatzeco dembora, eta eraman zuen bere ondoren erri guztiac: eta sequitu cioten guztiac, izan ciran banatuac.
38. Bada orain esaten dizutet, etzaitecela sartu guizon oyequin, eta utzi ezazutela: cergatic conrejue, edo obra au badator guizonan gatic, izango da desenguiña.
39. Bañan Jaungoicoan gandic badator, ecin deseguingo dezute, Jaungoicoari contra equiten diozutela iruritu etzaizuten. Eta sequitu zuten bere conrejua.
40. Eta Apostoluai otzo equinda, azotatu asita, aquindu cieten etzezatela gueyago Jesusen icenean itz eguin, eta ascatu cituzten.
41. Bañan ayec atera ciran port[eri]

concilioaren aurretic, cer-
gatic aurquitzen ciran
Jesusen icenean afrenta
guztiac eramateco me-
recitzalleac.

42\. Eta egun ero eracusten
zuten, eta predicatzen
zuten Jesusen icena
elizan, eta echeetan.

Seigarren Capitulua.

1\. Egun ayetan asi zanean gueyago
discipuluen alcartasuna, mubi-
tu zan Griegoen artean murmu-
racioa Hebroen contra, beren
alarguna egun eroco bearre-
tic boteac ciralaco.

2\. Argatic amabiac dicipuluen
aundiera otz eguin, eta esan
cieten: Ongui ez dago guc
Jaungoicoaren itza utzi de-
zaguen mayac serbitzea gatic.

3\. Autu itzazute bada zuen
artean zazpi guizon fama
onecoac, eta Espiritu santuz,
eta jaquinduriaz beteac; eta
oyei emayozute cargua obra
onena.

4\. Eta guc erregu eguingo degu
beti, eta gordeco degu itza.

5\. Eta junta guztian iruritu
citzayon ongui proposicio ac.
Eta autu zuten Esteban, gui-
zon fedez eta Espiritu santuz
betea, eta felipe, Procoro, Nicanor,
eta Timon, Parmenas, eta
Nicolas Antioquiaco regui-
tzallea.

6. Eta oyec jarri cituzten Apostoluen
aurrean: eta errequ equiñaz jarri
cituzten escuac beren gañean.
7. Eta Jaunaren itza asitzen zan,
eta dicipuloen numeroa aundi-
tzen zan asco Jerusalenen: eta
sacerdoteen queyentasunac obedi-
tzen zuen fedea.
8. Bañan Estebanec, graciaz eta
indarrez beteric, equiten cituen
errian gauza isugarri eta mi-
lagro asco.
9. Eta sinagogaco asco, Libertinoac
deitzen ciradenac, eta Cirineoac,
eta Alejandrinoac, eta Ciciliaco,
eta Asiacoac alchatu ciran,
Estebanequin dispútatzea:
10. Bañan ecin zuten itz equiten zuen
jaquinduriari, eta Espirituari
contra equin.
11. Orduan irabaci cituzten batzuec,
esateco aditu zutela berac Moise-
ren, eta Jaungoicoaren contra
itz gaiztoac.
12. Eta icaratu zuten erria, gui-
zon zarrac, eta Escribac: eta
conjuraturic artu zuten, eta
eraman zuten conciliora,
13. Eta atera cituzten testiqu fal-
soac, esateco: Guizon au beti
dago itz equiten lecu santuaren,
eta leguearen contra.
14. Cergatic aditu diogu esaten:
Jesus Nazareno onec lur bier-
tuco duela lecu au, eta Moisesec
eman ciguen itzac trucatuco
dituela.

15. Eta concilioan ceuden guztiac
beregan beguiac jarriric,
icusi zuten bere arpeguia
aingueru batena becela.

## Zazpigarren Capitulua.

1. Orduan sacerdote aundiac esan
zuen: ¿ Gauza oyec onela dira?
2. Berac esan zuen: Anayac,
eta aitac, aditu ezazute:
Gloriaco Jaungoicoa aguertu
citzayon gure aita Abraani
Mesopotamian cegoanean,
Caranen bicitu zan bañan
lenago,
3. Eta esan cion: Atera zaitez
erritic, eta zure aideen ar-
tetic, eta etorri zaite nic
eracutsico dizudan lurrera.
4. Orduan atera zan Caldeoen
lurretic, eta bicitu zan Ca-
ranen. Eta bere aita il zo-
nean, eraman zuen orain
zuec bici ceraten lur onetara.
5. Eta etzion eman oñ batere
lur artatic: bañan esquiñi
cion emango ciola berari,
eta bere ondoren bere ondo-
rengoari posesioan.
6. Eta esan cion Jaungoicoac:
Bere ondorengoac bicico cirala
lur arrotsetan, eta biurtuco
zutela erria esclabitudera,
eta gaiztotuco zutela lareun
urtean:
7. Bañan ayec serbitu zuten
jendea, izango da juzgatua
ni gaitic, esan zuen Jaungoicoa

eta guero ateraco dira, eta serbituco
naute lur onetan.
8. Eta eman cieten circuncisioco
testamentua: eta onela eguin
zuen Isaac, eta circuncidatu
zuen zortzigarren egunean:
eta Isaaquec eguin zuen Jacob;
eta Jacobec, amabi Patriarcac.
9. Eta Patriarcac embidiaz beteric,
saldu zuten Josef Ejiptoraco.
Bañan Jaungoico cegoen berarequin:
10. Eta libratu zuen bere pena
guztietatic: eta eman cion gracia,
eta jaquinduric Faraon Ejiptoco
erreguearen aurrean, ceñec
eguin zuen Ejiptoco, eta bere
eche guztico gobernatzallea.
11. Etorri zan guero Ejiptoco, eta
Canaango erri guztira gosea,
eta pena aundi bat: eta gure
aitac etzuten aurquitzen
cer janican.
12. Eta Jacobec aditu zuenean
Ejipton garia cegoala, bialdu
cieten gure aitai aurreneco
aldian: